BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

5156

EBAZPENA, 2009ko otsailaren 26koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Vitoria-Gasteizko SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresari ingurumeneko baimen bateratua ematen diona, eraikuntza aeronautiko eta espazialerako.

AURREKARIAK

2008ko martxoaren 31n, José Luis Puente Castán jaunak, SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresaren izenean eta ordezkaritzan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, uztailaren 1eko 16/2006 Legeak, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, Vitoria-Gasteizko (Araba) udalerrian eraikuntza aeronautiko eta espazialerako. Eskaerarekin batera, Vitoria-Gasteizko Udalari 2008ko otsailaren 27an egindako hirigintza-txostenaren eskaera eta agiri tekniko hauek aurkeztu zituen: «Ingurumeneko Baimen Bateratua. SK2024 Aeronáutica, S.L. 2008ko martxoa».

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresak, besteak beste, jarduerarako 2001eko otsailaren 5eko baimena zuen, eta ibilgura isurtzeko baimena, 2006ko irailaren 26koa.

2008ko ekainaren 10ean, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidea adosteari dagokionez (Vitoria-Gasteizko Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Ebroko Ur Konfederazioari).

Ingurumen Organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari 2008ko uztailaren 18an eta urriaren 1ean; espedientea 2008ko urriaren 20an osatu zen.

Ingurumen sailburuordeak 2008ko urriaren 10ean emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2008ko urriaren 29an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2008ko urriaren 26an, eta ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidetze-epea bete ondoren, alegazio-idazkirik aurkeztu ez zela egiaztatu zen.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko abenduaren 12an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Vitoria-Gasteizko Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Ebroko Ur Konfederazioari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2009ko otsailaren 5ean, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoaren 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituta. Ez zen horren inguruko jakinarazpenik jaso.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren, uztailaren 1eko 16/2002 Legea, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoa, garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duenaren 3. artikuluan xedatutakoa betez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta lerro guztiak, 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusia dutenak.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar da 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua aplikatzeko den instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena ematen parte hartuko duten Herri Administrazio guztien artean koordinatuko den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen legerian aurreikusitako ingurumen-baimen guztiak administrazio-egintza bakar batean bildu nahi dira. SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresaren kasuan, baimen hauek behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez arriskutsuak sortzeko baimena; ibilgura isurketak egiteko baimena, eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak, eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta aurre hartzeari dagozkionak.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzkoak, aurreikusten duen jarduera sailkatuetarako udal-baimenaren prozedura ordezkatzen du; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua loteslea izango da udal-agintarientzat, baldin eta lizentzia ukatzeko edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko guztian ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean, Euskal Herriko ingurumena babestekoan aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Vitoria-Gasteizko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien muga-balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak eta aplikatzeko den arloko legerian ezarritako neurriak eta baldintzak. Zehazki, azal metaliko eta plastikoen tratamenduaren inguruko (Reference Document on Best Available Techniques for the Surface Treatment of Metals and Plastics) BREF agiriaren edukia hartu da kontuan , Europako Batzordearena eta 2006ko abuztukoa. Gainera, arloko araudiari dagokionez, kasu honetan apirilaren 30eko 782/1998 Errege Dekretua aplikatu behar da. Dekretu horren bidez, apirilaren 24ko 11/1997 Legea, ontziei eta ontzi-hondakinei buruzkoa, garatzeko eta betetzeko Araudia, eta urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretua, zenbait jardueratan disolbatzaile organikoak erabiltzean sortzen diren konposatu organiko hegazkorren isuriak murrizteari buruzkoa onartzen dira.

Espedienteko txostenak aztertu eta proiektu osoaren ingurumen-ebaluazioa egin ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoaren 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duenaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2009ko otsailaren 5ean emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko ingurumena babesteari buruzkoa; uztailaren 1eko 16/2002 Legea, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoa; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzekoa den gainerako araudia,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Egoitza soziala Vitoria-Gasteizko udalerriko (Araba) Arabako Parke Teknologikoko Marie Curie kaleko 2. zenbakian eta IFK: B-01374925 duen SK2024 Aeronáutica, S.L.. enpresari ingurumeneko baimen bateratua ematea helbide horretako instalazioetan eraikuntza aeronautiko eta espazialeko jarduerarako, ebazpen honen bigarren atalean ezarritako baldintzekin.

Jarduera uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoaren 1. eranskineko 2.6 kategorian sartuta dago, «Metalen eta plastikozko materialen azala prozedura elektrolitiko edo kimiko bidez tratatzeko instalazioak, tratamendurako erabilitako kubeten edo lerro osoen bolumena 30 m^3-tik gorakoa denean» izenekoan.

Lantegia Vitoria-Gasteizko udalerriko (Araba) Arabako Parke Teknologikoko Marie Curie kaleko 2. zenbakian dago.

Lantegiaren helburua osagaiak ekoiztea eta azpimuntaia aeronautiko txikiak egitea da, eta hirugarrenei, likido sarkorren bidez, azal-tratamendurako eta ikuskapenerako zerbitzuak eskaintzea. Lehengaiak erabiliz ekoizpen osoa eta beste bezeroei eskaintzen zaizkien zerbitzuak (gehienbat mekanizatuak) bereizten dira.

Gehienezko ekoizte-ahalmena hau da:

● 175.000 pieza partzialki prozesatuak.

● 375.000 pieza osoki prozesatuak.

Bi motako energia erabiltzen ditu jarduerak:

● Energia elektrikoa: urteko kontsumoa 1.521.640 kWh-koa da. Kubetak eta azal-tratamenduko lerroak berotzeko, pintura-instalaziorako eta aire konprimituzko instalaziorako erabiltzen da.

● Gas naturala: urteko kontsumoa 1.485.153 kWh-koa da. Lurrun-galdararako, pintura-instalaziorako, aire beroko bi sorgailuetarako eta hormako bi galdaretarako erabiltzen da.

Ekoizpen-lerroak osatzen dituzten prozesuak hauek dira:

1.– Lehengaiak hartzea: erositako materialen ezaugarriek eskaeraren gutxieneko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko prozesuak hartzen ditu barne.

2.– Ebakitzea eta ertzak prestatzea: konformazioaren aurretik piezen forma eta ingurua aurrefinkatzeko prozesuak dira.

3.– Tratamendu termikoa: aleazioen egitura aldatzeko prozesuak dira, horien ezaugarri fisiko eta mekanikoak aldatuta gera daitezen, metalen konformagarritasuna eta mekanizagarritasuna edota azken ezaugarriak hobetzearren.

Tratamendu termiko ohikoenak hauek dira: tenplaketa (disolbagarritzea+moteltzea), zahartzapen artifiziala eta suberaketa.

Tratamendu horiek 550 ºC-ko gehienezko jardun-tenperatura duen labe batean burutzen dira.

4.– Konformazioa: piezari behin betiko forma emateko prozesuak, tolestatuz, prentsatuz eta eskuz modelatuz.

Hona txapa konformatzeko erabilitako instalazio batzuk: lautzeko makinak, tolesteko makinak, moldekatzeko makinak, trokelatzeko makinak, makotzeko makinak, zulatzeko makinak eta zizailak.

5.– Soldatzea: multzo baten zati bat edo gehiago mihiztatzeko prozesua, batez ere hodiak eta estaldura aerodinamikoak, bestelako loturarik onartzen ez dutenak.

6.– Gogortasunaren eta eroankortasunaren ebaluazioa: aluminio-aleazioen tratamendu termikoa edo egoera egiaztatzeko prozesuak.

7.– Likido sarkorrak ikuskatzea: pieza metaliko eta ez-metalikoen azalean balizko pitzadurak eta haize-zuloak detektatzeko prozesuak. Oro har altzairuzko, titaniozko, aluminiozko eta horien aleaziozko piezetan egin beharreko ikuskapena.

Prozesua likido fluoreszente eta kapilaritate handikoen bidez burutzen da, eta etenunetako barneratzea argi ultramorez agerrarazten da.

8.– Shot peening: metalezko gaien nekearengatiko narriadura, pitzadura edo korrosioa saihesteko prozesua. Prozesu berezia da, piezaren azal osoa edo zati bat zenbait materialekin granailatuz burutzen dena. SK2024 enpresan «hezetako beira-perlara» mugatzen da aluminiozko piezetarako.

9.– Azal-tratamenduak: Metalen azalen ezaugarriak aldatzeko eta hobetzeko prozesuak dira. Piezen azalean korrosio-kontrako eta babesteko ezaugarriak dituzten mintzak sortzen dira. Batik bat aluminiozko eta horren aleaziozko piezetan egin beharreko jarduera. Egiten diren prozesu nagusiak hauek dira:

● Garbitzea eta desugertzea (zenbait metal).

● Anodizazio kromoduna (aluminioa eta horren aleazioak) Zigilatzen direnean geruza itsaskorrak eta korrosioarekiko erresistentzia onekoak eskaintzen ditu.

● Anodizazio sulfurikoa (aluminioa eta horren aleazioak) Geruza gogorrak eta korrosioarekiko erresistentzia onekoak eskaintzen ditu. Tindatu egin daiteke.

● Konbertsio kimikoa, kromatatzea edo alodintzea (aluminioa eta horren aleazioak) Geruza itsaskorrak eta korrosioaren aurkako babes ertainekoak eskaintzen ditu.

● Pasibatzea (altzairua eta horren aleazioak) Altzairu herdoilgaitzen azalei egonkortasun kimikoa ematen die, eta korrosioarekiko erresistentzia hobetzen du.

10.– Pintaketa: Ezaugarri desberdinetako (korrosio-kontrako inprimazioak, lerratze-kontrako pinturak, marruskadura-kontrakoak, eroaleak, etab.) akaberak aplikatzeko prozesua.

Azal desberdinen gainean babes organikoak aplikatzea, korrosioaren kontra babesteko, edo akabera estetikoa emateko. Metalezko piezaren zein instalazioan osatutako materialezko piezaren gainean gauzatutako prozesua, tenperatura, hezetasuna, garbiketa, nahasketa-gelan prestatzea, tenperatura altuan eta baxuan lehortzeko berogailuak kontuan hartuta behar diren baldintza guztiak betetzen dituztenak.

11.– Azpimuntaiak: Bitarteko mihiztatzerako prozesuak (azkoinak, zorroak, errotulak, etab.), muntaia handiagoak edo piezen ezaugarri funtzionalak errazteko.

12.– Ziurtatzea/bidaltzea: agiri bidezko prozesua, SK2024 enpresak bidalitako materialak baliozkotzera bideratua, bezeroekin adostutako baldintzak, materialen zehaztapenen bidez, betetzen direla ziurtatzeko.

13.– Administrazioa.

Zuzendaritza, kalitatea, sistemak eta programak, giza baliabideak administrazioa eta erosketak funtzioetarako administrazio-gunea.

14.– Zerbitzu osagarriak.

Eragiketa eta zerbitzu osagarri nagusiak hauek dira:

● Mantentze-lanak: instalazioetan dauden ekipoen jarraipen prebentiboa, zuzentzailea eta sistematikoa da.

● Hondakin arriskutsuak biltegiratzea.

● Urak arazteko gela: instalazioan sortzen diren garbiketa-urak, zein bainuetako erreaktiboak aldatzean sortutako kontzentratuak araztu ditzake instalazioak.

● Gasa hartzeko estazioa (ERM).

● Eraldaketa-zentroa.

● Hozte-dorrea, Sang-250 labeak behar duena.

● Lurrun-galdara, gas naturalezkoa.

● Hormako bi galdara bulegoetako, behe-solairuko eta lehen solairuko berogailurako.

● Aire beroko bi sorgailu pabiloiko berogailurako.

● Aire konprimituzko instalazioa.

SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresak isuri atmosferikoen 13 foku ditu, prozesuen arabera katalogatuta:

● Pintaketa: 7 foku ditu: 2 foku pintura lehortzeari lotuta, 2 foku kabinako erregailuei, beste 2 foku lehortzeko berogailuetako erregailuei, eta foku 1 pintura-boxari.

● Jariatzea: foku 1 du korindoi-jariatzeari lotuta.

● Azal-tratamenduak: prozesu honi lotutako bainu-eremuko 2 foku eta azal-tratamenduko galdararen foku 1 daude.

● Zigilatzea: zigilatzaileen saileko isuriak biltzen dituen foku 1 dagokio.

● Ertzak prestatzea: prozesu honetan isurtze-foku 1 dago.

SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresan 6 ur-fluxu daude guztira. Hauek dira fluxuak:

● FR 1: Likido sarkorren hondarrak dituzten garbiketa-urak. Likido sarkorren hondarrak bereizten dituen ikatz aktibozko iragazki batetik pasarazten dira. Segurtasun handiagorako eta prozesua sendotzeko, ur iragazia araztegira eramaten da.

● FR 2: Prozesuko urak. Kubeten garbiketetako urak dira. Hondakin-urak sortzen dituen prozesua aluminio-aleazioen azal-tratamendu anodikoa, kimikoa eta elektrokimikoa da. Urak araz-keta-instalazioan tratatzen dira.

● FR 3: Hozte-urak. Hozte-zirkuitua Sang 250 labeko tenplaketa-bainuari lotuta dago. Dorreak zirkuitu itxian jarduten du, eta euri-uren sarera konektatutako gainezkabide bat du.

● FR 4: Desmineralizagailuko urak. Erabilitako ur guztia hornidura-sarekoa da, eta soilik egoera batzuetan, hala nola bainuak eta irakuzketa jakin batzuk eratzean, desmineralizatzen da ura. Horren isurketa araztegira konektatuta dago.

● FR 5: Ur beltzak. Komunetako ur beltzak bildu, parke teknologikoko sarera eramaten dira, eta parkeko ur beltzen sare bereizlearen araztegian amaitzen dute.

● FR 6: Euri-urak. Bideetako euri-urak eta eraikinaren estalkietakoak (teilatuko zorrotenaren bidez) biltzen dira, eta lur zati bereko euri-uren sare bereizlera eramaten dira.

Enpresaren instalazioetan bi isurketa-puntu daude: puntu bat industria-ur araztuaren irteerari dagokio, eta euri-urak gehitu ondoren Zadorra ibaiaren adarra den Retana errekastora doaz; eta beste puntua ur beltzak Miñanoko parkeko sare bereizlera lotzen dituena da.

Proiektuak teknika erabilgarri onenak (TEO) izan daitezkeen ondorengo neurriak hartzen ditu barne: bainuak behe-presioko aire bidez etengabeko mugimenduan, bastidoreak erabiltzea, spray bidezko urberritzeak eta korrontearen kontrako jauzian, eta ur-oinarriko koipegabetzeak erabiltzea.

Bigarrena.– SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresak Vitoria-Gasteizko udalerriko instalazioetan garatzen duen eraikuntza aeronautiko eta espazialeko jarduerarako ondorengo baldintzak eta eskakizunak jartzea:

A) Administrazioarekiko harremanen arduradunari buruz emandako datuetan aldaketarik badago, SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresak aldaketa horien berri emango du Ingurumen Sailburuordetzan.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.– Baldintza orokorrak.

SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresaren lantegia ustiatzean egingo diren isuri atmosferikoek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako isurtzeko muga-balioak gaindituko.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanporatuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango isuri zarratuak biltzea teknikoki edota ekonomikoki bideragarria ez denean, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabeko isuririk ez egiteko, eta egiten direnak giza osasunerako eta gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta zainduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresaren instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babesteaaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Fokuaren kodea	Fokuaren izena	Garaiera	Diametroa	Taldea	UTM koordenatuak	
						X	Y
1	01000172-01	S1. Pintura lehortzeari lotua	12 m	0,98 m	B	527037	4750651
2	01000172-02	S2. Pintura lehortzeari lotua	12 m	0,98 m	B	527037	4750651
3	01000172-03	S3. 1. kabinako erregailua	12 m	0,35 m	C	527037	4750651
4	01000172-04	S4. 2. kabinako erregailua	12 m	0,35 m	C	527037	4750651
5	01000172-05	S5. Lehortzeko 1. berogailuko erregailua	12 m	0,20 m	C	527037	4750651
6	01000172-06	S6. Lehortzeko 2. berogailuko erregailua	12 m	0,20 m	C	527037	4750651
7	01000172-07	S7. Pintura-boxa	12 m	0,40 m	C	527070	4750956
8	01000172-08	S8. Korindoi-jariatzea	5 m	0,15 m	C	527091	4750964
9	01000172-09	S9. Bainu-eremuko fokuak	12 m	0,80 m	C	527066	4750670
10	01000172-10	S10. Bainu-eremuko fokuak	12 m	0,80 m	C	527066	4750670
11	01000172-11	S11. Azal-tratamenduko galdara	12 m	0,80 m	C	527086	4750645
12	01000172-12	S14. Zigilatzaileak	4 m	0,30 m	C	527118	4750920
13	01000172-13	S16. Ertzak prestatzeko makina	6 m	0,30 m	C	527130	4750890

Gainera isuri barreiatuak sortzen dira pintura-eremuan, batik bat disolbatzaileekin (azetona eta MEK) egindako garbiketetan. Isuri horiek etenak dira, eta isurtzen diren kutsatzaileak konposatu organiko hegazkorrak dira.

B.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean egingo diren isuri atmosferikoek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gaindituko:

Fokuak	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1	Guztizko partikulak (GP)	50 mg/Nm^3
	Konposatu organiko hegazkorrak KOG gisa neurtuta	(*) 100 mgC/Nm^3
2	Guztizko partikulak (GP)	50 mg/Nm^3
	Konposatu organiko hegazkorrak KOG gisa neurtuta	(*) 100 mgC/Nm^3
3	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak (NO_X)	300 ppm
4	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak (NO_X)	300 ppm
5	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak (NO_X)	300 ppm
6	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak (NO_X)	300 ppm
7	Guztizko partikulak (GP)	150 mg/Nm^3
	Konposatu organiko hegazkorrak KOG gisa neurtuta	(*) 100 mgC/Nm^3
8	Guztizko partikulak (GP)	50 mg/Nm^3
9	Guztizko partikulak (GP)	30 mg/Nm^3
	Nitrogeno oxidoak (NO_X)	500 mg/Nm^3
	Sufre oxidoak (SO_X)	10 mg/Nm^3
	Guztizko kromoa (Guztizko Cr)	0,2 mg/Nm^3
10	Guztizko partikulak (GP)	30 mg/Nm^3
	Nitrogeno oxidoak (NO_X)	500 mg/Nm^3
	Guztizko kromoa (Guztizko Cr)	0,2 mg/Nm^3
	Hidrogeno fluoruroa (HF)	2 mg/Nm^3
11	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak (NO_X)	300 ppm
12	Guztizko partikulak (GP)	150 mg/Nm^3
	Konposatu organiko hegazkorrak KOG gisa neurtuta	(**) –
13	Guztizko partikulak (GP)	50 mg/Nm^3

(*) R45, R46, R49, R60 edo R61 arrisku-esakuneak dituzten konposatu organiko hegazkorren isurien kasuan, isurtzeko muga-balioa 2 mg/Nm^3-koa izango da konposatuen baturaren masa-emaria 10 g/h baino handiagoa edo berdina denean. Hala ere, arrisku-esakune bat duten gaiak edo prestakinak erabiltzen dituzten instalazioek ordeztu egin beharko dituzte, ahal den neurrian, hain kaltegarriak ez diren gai edo prestakinekin. Horretarako, ordezteko aukerak daudela frogatzen denean, ahalik eta azkarren ordeztuko dira.

(**) KEB bidezko neurketen emaitzak ikusita zehaztuko da muga, eta foku horri lotutako konposatu organiko hegazkorren kontsumoaren arabera.

Estalketa-jarduerarako isuri barreiatuaren muga-balioa (disolbatzaile-sarreren portzentajea) % 25ekoa izango da.

Konposatu organiko hegazkorren kontsumoaren arabera, zigilatzaileak aplikatzeko jarduerarako ezarritako % 25eko isurtzeko muga-balioa aplikatuko da.

Isurtzeko muga-balioak baldintza hauei buruzkoak dira: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-eko presioa eta gas lehorra.

Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu behar arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40 gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditu gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da eta aldi horretako tolerantzia global gisa, kasuen 100eko seian gehienezko maila onargarriak gainditzea onartuko da, 100eko hogeita bosta gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eragin-eremuan ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

1, 2, 7 eta 12. fokuetarako neurtzen diren KOHei dagokienez (KOG gisa neurtuak), ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu behar arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), neurketen batez bestekoak isurtzeko muga-balioak gainditzen ez baditu, eta ordubeteko neurketetako batek ere isurtzeko muga-balioak 1,5etik gorako faktorean gainditzen ez baditu.

B.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo B.1.2 atalean ezarritako goreneko kotatik behera. Tximiniek Industria Ministerioaren 1976ko urriaren 18ko Agindua, industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzekoan ezarritako baldintzak beteko dituzte; horrela, besteak beste, laginak hartzeko puntuetara sarbide seguruak eta errazak jarriko dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziak (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute. L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ezi diren fokuetarako inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

B.2.– Ibilgura isurtzeko baldintzak.

B.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: Metalen tratamendua eta estaldura.

Jarduera-taldea: Eraikuntza aeronautiko eta espaziala.

Mota-taldea-EJSN: 1- 2-35.30.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	UTM koordenatuak
1	Kubeten garbiketetako industria-urak	Hondakin-uren araztegia	Retana Errekastoa (Zadorra Ibaia)	X: 527016 Y: 4751076

B.2.2.– Gehienez isur daitezkeen emari eta bolumenak.

Eguneko gehienezko bolumena	91 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	21.100 m^3/urte

B.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Ibilgura egiten den isurketaren ohiko kutsadura-parametroak ondoren zerrendatutakoak izango dira soilik, bakoitzerako zehazten diren gehienezko balioekin:

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH-a	5,5-9,5
Oxigeno-eskari kimikoa (OEK)	<100 mg/l
Solido esekiak	< 60 mg/l
Olioak eta koipeak	< 5 mg/l
Kromoa (III)	< 2 mg/l
Kromoa (VI)	< 0,2 mg/l

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

Gainera, ingurune hartzaileari dagozkion arauak eta kalitate-helburuak bete behar dira. Aitzitik, titularrak kasuan kasu tratamendu egokia egin beharko du, isurketaren ondorioz aipatutako kalitate-helburuak urratzen ez direla ziurtatzeko.

Baimen horrek ez du baldintza honetan berariaz adierazitakoak ez diren bestelako substantzien isurketa onartzen, batez ere maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren gai arriskutsuak. Errege Dekretu horren bidez, Urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen atariko titulua eta I, IV, V, VI eta VIII. tituluak garatzen dituen jabari hidrauliko publikoari buruzko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua aldatzen da.

B.2.4.– Arazteko eta husteko instalazioak.

Hondakin-uren arazketa-instalazioek jarduera nagusi hauek dituzte funtsean:

- Ponpatze-estazioa.
- Tratamendu-ontzia (kromato-erredukzioa, neutralizatzea eta azken kontrola).
- Dekantazioa.
- Kontzentratu agortuen andelak.
- Erreaktibo-andela.
- Lohi-dekantagailua.

- Lohi-lodigarria.
- Neurtu eta kontrolatzeko tresnak.
- Prentsa-iragazkia.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketa-instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik. Behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

2 urteko epean, azterlan tekniko bat aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetzan eta Ebroko Ur Konfederazioan, bereziki garbiketa-kubetetan eta instalazioetan uraren erabilera optimizatzeko ezarriko diren neurriak deskribatzeko, sortutako hondakin-uren bolumena murriztearren.

Araztegiaren irteeran efluentea kontrolatzeko emari-neurgailu bat instalatuko da. Emari-neurgailuak uneko balioa eta metatua noiznahi ezagutzeko aukera emango du.

Arazketa osagarria eskatu ahal izango da, erasandako ur-masaren egoera ekologikoari edota kimikoari eragiten dion gorabehera negatiboren bat antzematen bada ingurune hartzailean.

Gerora isurketa hori saneamendu-sare orokorrarekin lotzeko aukerarik badago, sare horretara konektatuko da, eska daitekeen moduan, eta ingurumen-organoari eta Ebroko Ur Konfederazioari jakinaraziko zaie.

Instalazioaren titularrak kolektoreak eta arazketa-instalazioak funtzionamendu-egoera egokian zaindu beharko ditu. Horrela, betebehar horietarako pertsona bat izendatu beharko du eta instalazioak zaindu eta funtzionatzeko arau zorrotzak eta beharrezko bitartekoak emango dizkio.

Aurkeztutako agirien arabera, kontrol-kutxeta bat jarriko da azken isurketarako; kutxeta horrek isurketaren lagin esanguratsuak lortzeko eta emaria neurtzeko beharrezko ezaugarri guztiak izan beharko ditu. Azken isurketaren kutxetak kanpotik sartzeko aukera izango du, jarduera garatzen den esparruan sartu behar izan gabe.

Kasu honetan, efluenteak kontrolatzeko nahitaezkoa da ondorengo elementuak izatea: isurketaren emaria neurtzeko sistema, uneko balioa eta metatua noiznahi ezagutu ahal izateko.

Aurreko baldintzetan ezarritako kontrolez gain, Arroko Erakundeak egoki deritzon analisi eta ikuskapenak egin ahalko ditu isurketaren ezaugarriak aztertu eta, hala badagokio, kontrol horien baliozkotasuna alderatzeko. Lan horiek zuzenean edo erakunde laguntzaileen bitartez egin ahal izango dira.

B.2.5.– Isurien kontrol-kanona.

Uraren Legearen Testu Bateginaren 113. artikulua eta Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduaren (606/2003 Errege Dekretua) 291. artikulua aplikatuz, hauxe da isurien kontrol-kanona:

(IKK): Isurien kontrol-kanona = $V \times P_u$.

$P_u = P_o \times K_m$.

$K_m = K_2 \times K_3 \times K_4$.

Honela ulertuta:

V = Isurketa baimenduaren bolumena (m^3/urte).

P_u = Isurketaren kontroleko prezio unitarioa.

P_o = Oinarrizko prezioa m^3-ko isurketaren izaeraren arabera.

K_m = Isurketaren maiorazioko edo minorazioko koefizientea.

K_2 = Isurketaren ezaugarrien araberako koefizientea.

K_3 = Isurketaren kutsadura-mailaren araberako koefizientea.

K_4 = Ingurune hartzailearen ingurumen-kalitatearen araberako koefizientea.

1. isurketa: industria-erabilerako urak:

V: Bolumena: Po: Hondakin-ura: Industriala K2: Gai arriskutsuak dituen klasea K3: Tratamendu egokia K4: Kategoria-eremua: II	V = 21.100 m^3 / urte Pb = 0,03005 €/m^3 K2 = 1,28 K3 = 0,5 K4 = 1,12

K_m = 1,28 ×005 × 1,12 = 0,7168.

P_u = 0,03005 × 0,7168 = 0,02154 euro/m^3.

Isurien kontrol-kanona = 21.100 m^3/urte × 0,02154 euro/m^3 = 454,49 euro/urte.

Zenbateko hori ez da aldatuko isurtzeko baimena edo isurien kontrol-kanonaren kalkulua osatzen duten faktoreetako bat aldatzen ez den artean.

B.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak apirilaren 21eko 10/1998 Legean, hondakinei buruzkoan, eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira, eta hala badagokio, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako artezpideak.

Hondakinak biltzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ustekabeko jarioak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes eginez gero, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Vitoria-Gasteizeko Udalean.

B.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak hauek dira:

● 1. prozesua: Alkali bidezko azal tratamenduak.

○ 1. hondakina: «Koipegabetze alkalinoa».

– Identifikazioa: B01374925/100007129/1/1.

– Hondakinaren kodea: Q7//D13//L9-21//C24-51//H14//A243//B3128.

– EHZ: 11 01 13.

– Urtean sortutako kantitatea: 6 tona.

Azal-tratamenduko sailean sortzen da. Gai arriskutsuak dituzten koipegabetze-hondakinak dira. Hondakin-eremuan biltzen da eta kudeatzaile baimenduak eramaten du gero. Noizean behin biltzen da.

● 2. prozesua: Gatz bidezko azal tratamenduak.

○ 1. hondakina: Sodio dikromato agortua.

– Identifikazioa: B01374925/100007129/2/1.

– Hondakinaren kodea: Q7//D13//L27//C3//H6-8//A243//B3129.

– EHZ: 06 03 13.

– Urtean sortutako kantitatea: 15 tona.

Azal-tratamenduko sailean sortzen da. Metal astunak dituzten gatz solidoak eta disoluzioak dira. Hondakin-eremuan biltzen da eta kudeatzaile baimenduak eramaten du gero. Sei hilero biltzen da.

● 3. prozesua: Azido bidezko azal tratamenduak.

○ 1. hondakina: Azido kromiko agortua.

– Identifikazioa: B01374925/100007129/3/1.

– Hondakinaren kodea: Q7//D13//L27//C3-23//H6-8//A243//B3127.

– EHZ: 06 01 06.

– Urtean sortutako kantitatea: 6 tona.

Azal-tratamenduko sailean sortzen da. Azido agortuak dira. Hondakin-eremuan biltzen da eta kudeatzaile baimenduak eramaten du gero. Sei hilero biltzen da.

● 4. prozesua: Prozesu pirometalurgiko orokorrak.

○ 1. hondakina: Glikoldun ura.

– Identifikazioa: B01374925/100007129/4/1.

– Hondakinaren kodea: Q5//D9//L6//C43//H5//A243//B3201.

– EHZ: 07 01 01.

– Urtean sortutako kantitatea: 10 tona.

Tratamendu termikoen sailean sortzen da. Garbiketako likidoak dira. Hondakin-eremuan biltzen da eta kudeatzaile baimenduak eramaten du gero. Noizean behin biltzen da.

● 5. prozesua: Azalen akabera.

○ 1. prozesua: Azido eta kromato nahasketa.

– Identifikazioa: B01374925/100007129/5/1.

– Hondakinaren kodea: Q7//D13//L27//C3-23//H6-8//A243//B3251.

– EHZ: 06 01 06.

– Urtean sortutako kantitatea: 10 tona.

Azal-tratamenduko sailean sortzen da. Nahasketa azido bat da. Hondakin-eremuan biltzen da eta kudeatzaile baimenduak eramaten du gero. Sei hilero biltzen da.

● 6. prozesua: Pintaketa eta arazketa.

○ 1. hondakina: Araztegiko lohi kromodunak.

– Identifikazioa: B01374925/100007129/6/1.

– Hondakinaren kodea: Q8//D13//P27//C3-23//H6//A243//B3144.

– EHZ: 19 08 13.

– Urtean sortutako kantitatea: 10 tona.

Arazketa-instalazioan sortzen da. Hondakin-uren tratamenduko gaiak dituzten lohiak dira. Hondakin-eremuan biltzen da eta kudeatzaile baimenduak eramaten du gero. Sei hilero biltzen da.

○ 2. hondakina: Disolbatzaileak dituzten pintura oreak.

– Identifikazioa: B01374925/100007129/6/2.

– Hondakinaren kodea: Q8//R13//P5-12//C41-43//H3B//A243//B3144.

– EHZ: 08 01 13.

– Urtean sortutako kantitatea: 6 tona.

Pintura-sailean sortzen da. Disolbatzaile organikoak dituzten pintura-lohiak dira. Hondakin-eremuan biltzen da eta kudeatzaile baimenduak eramaten du gero. Sei hilero biltzen da.

○ 3. hondakina: Base, katalizatzaile, pintura eta zigilatzaile iraungiak.

– Identifikazioa: B01374925/100007129/6/3.

– Hondakinaren kodea: Q8//R13//P5-12//C41-43//H3B//A243//B3144.

– EHZ: 08 01 13.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,5 tona.

Pintura-sailean sortzen da. Disolbatzaile organikoak dituzten pintura-lohiak dira. Hondakin-eremuan biltzen da eta kudeatzaile baimenduak eramaten du gero. Sei hilero biltzen da.

○ 4. hondakina: Likido fluoreszentea.

– Identifikazioa: B01374925/100007129/6/4.

– Hondakinaren kodea: Q8//D13//L20//C51//H5//A243//B3144.

– EHZ: 07 01 04.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,2 tona.

Likido sarkorren bidezko ikuskapenean sortzen da. Hondakin-eremuan biltzen da eta kudeatzaile baimenduak eramaten du gero. Sei hilero biltzen da.

● 7. prozesua: Zerbitzu orokorrak.

○ 1. hondakina: Material bustia.

– Identifikazioa: B01374925/100007129/7/1.

– Hondakinaren kodea: Q5//D13//S40//C41-51//H5//A243//B0019.

– EHZ: 15 02 02.

– Urtean sortutako kantitatea: kuantifikatzeke.

Mantentze-lan eta zerbitzu orokorretan sortzen da. Gai arriskutsuekin bustitako xurgatzaileak eta garbiketako materialak dira. Hondakin-eremuan biltzen da eta kudeatzaile baimenduak eramaten du gero. Sei hilero biltzen da.

○ 2. hondakina: Plastikozko ontzi hutsak.

– Identifikazioa: B01374925/100007129/7/2.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41-51//H5//A243//B0019.

– EHZ: 15 01 10.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,006 tona.

Zerbitzu orokorretan sortzen dira. Gai arriskutsuen hondarrak dituzten plastikozko ontziak dira. Hondakin-eremuan biltzen da eta kudeatzaile baimenduak eramaten du gero. Sei hilero biltzen da.

○ 3. hondakina: Olio urtsua.

– Identifikazioa: B01374925/100007129/7/3.

– Hondakinaren kodea: Q8//D13//L9//C51//H5//A243//B0019.

– EHZ: 12 01 09.

– Urtean sortutako kantitatea: 1 tona.

Halogenorik gabeko mekanizazio-emultsioak eta –disoluzioak dira. Hondakin-eremuan biltzen da eta kudeatzaile baimenduak eramaten du gero. Sei hilero biltzen da.

○ 4. hondakina: Metalezko ontzi hutsak.

– Identifikazioa: B01374925/100007129/7/4.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41-51//H5//A243//B0019.

– EHZ: 15 01 10.

– Urtean sortutako kantitatea: 200 kg.

Zerbitzu orokorretan sortzen dira. Gai arriskutsuen hondarrak dituzten metalezko ontziak dira. Hondakin-eremuan biltzen da eta kudeatzaile baimenduak eramaten du gero. Sei hilero biltzen da.

○ 5. hondakina: Disolbatzaile ez halogenatua.

– Identifikazioa: B01374925/100007129/7/5.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L5//C41-43//H3B//A243//B0019.

– EHZ: 14 06 03.

– Urtean sortutako kantitatea: hondakin puntuala.

Garbiketa-lanetan sortutako disolbatzaileak edo disolbatzaile-nahasketak dira. Hondakin-eremuan biltzen da eta kudeatzaile baimenduak eramaten du gero. Noizean behin biltzen da.

○ 6. hondakina: Ikatz aktibo erabilia.

– Identifikazioa: B01374925/100007129/7/6.

– Hondakinaren kodea: Q9//D13//S40//C51//H5//A243//B0019.

– EHZ: 19 09 04.

– Urtean sortutako kantitatea: kuantifikatzeke.

Likido sarkorren arazketan sortzen da. Hondakin-eremuan biltzen da eta kudeatzaile baimenduak eramaten du gero. Noizean behin biltzen da.

○ 7. hondakina: Fluoreszenteak.

– Identifikazioa: B01374925/100007129/7/7.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H6//A243//B0019.

– EHZ: 20 01 21.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,010 tona.

Zerbitzu orokorretan sortzen dira. Hondakin-eremuan biltzen da eta kudeatzaile baimenduak eramaten du gero. Noizean behin biltzen da.

○ 8. hondakina: Botoi pilak.

– Identifikazioa: B01374925/100007129/7/8.

– Hondakinaren kodea: Q16//R13//S37//C16//H6/14//A243//B0019.

– EHZ: 16 06 03.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,2 kg.

Zerbitzu orokorretan sortzen dira. Hondakin-eremuan biltzen da eta kudeatzaile baimenduak eramaten du gero. Noizean behin biltzen da.

○ 9. hondakina: Bateriak.

– Identifikazioa: B01374925/100007129/7/9.

– Hondakinaren kodea: Q16//R13//S37//C23/C18//H8//A243//B0019.

– EHZ: 16 06 01.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,001 tona.

Zerbitzu orokorretan sortzen dira. Hondakin-eremuan biltzen da eta kudeatzaile baimenduak eramaten du gero. Noizean behin biltzen da.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, jarioren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak, maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea, hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzkoa, betearazteko erregelamendua onartzen duenak, 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileari eman arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute. Etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du, eta uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Hondakin arriskutsuak denbora ezingo dira 6 hilabetetik gora biltegiratu.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, nahitaezkoak direnean, bost urtean gutxienez.

g) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

h) SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresak ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenari jarraituz kudeatu beharko du sortutako industria-olio erabiliak.

i) Ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresak.

j) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

k) SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresak poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak dituen artean, kudeaketa egokia izan dadin, nahitaez bete behar ditu 1999ko abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituenaren baldintzak, eta otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua, Errege Dekretu hori aldatzen duena.

l) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentze-lanen aurretik nahiz desmuntatu eta suntsitu baino lehen.

m) SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helburua eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

n) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko ondorengo aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko da Ingurumen Sailburuordetzara.

o) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarriak bete daitezen, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresak prebentziozko neurriak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana egin eta aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetza honetan, gutxienez lau urtean behin.

p) Aurreko e), f) (kudeatzaileak EAEn daudenean), m) eta n) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

q) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresak 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan, amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzekoan, ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten

hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena (kg)
Kartoia	150101	Lehengaiak hartzea, bulegoak	Noizean behin
Txatarra	120101	Ertzak prestatzea, bizar-kentzea	15.300
Tonerra	080317	Bulegoa	Noizean behin
Hirikoekin batera daitezkeen hondakinak (HBH)	200399	Orokorra	33.640
Zura	150103	Ertzak prestatzea, lehengaiak hartzea, akastunak, palet hautsiak	1.120
Papera	150101	Bulegoa	Noizean behin

Sustatzaileak sortutako hondakin ez-arriskutsu hauen kantitatea aurkeztu beharko du: papera, kartoia eta tonerra.

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu bati.

b) Hondakin ez-arriskutsuak ezingo dira 2 urtetik gora biltegiratu.

c) Oro har, hondakinak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, nahitaezkoak direnean, bost urtean gutxienez.

d) Halaber, azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin, hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzkoarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

e) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

f) Aurreko c) eta d) (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta e) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako agindua betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztu duten aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresak jarduera hauek gauzatu beharko ditu:

● Hondakinak biltegiratzeko eremua diseinatu eta egokitu. Ordura arte jarioak sor ditzaketen hondakinak modu egokian biltegiratuko direla bermatuko da, lurzorua edo lurpeko urak kutsatzea saihesteko.

● Kubetak aldizka garbitu, euri-urak, ezohiko jarioek, eta abarrek gainezka eginez gero lurzorua kutsa dezaketen eta nahi ez diren gaiak metatzea saihesteko.

● Instalazioen mantentze-lan egoki bat ziurtatu, ingurumenerako arriskuak kontrolatuta egoten segitu dezaten.

B.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak hartu eta instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b)Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

C) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan eta ondoko atal hauetan aurreikusitakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Isuri atmosferikoak kontrolatzea.

a) SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresak isurien kontrola egin beharko du, informazio honi jarraituz:

Foku zk.	Foku-kodea	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	01000172-01	S1. Pintura lehortzeari lotua	Guztizko partikulak (GP) Konposatu organiko hegazkorrak KOG gisa neurtuta	3 urtean behin
2	01000172-02	S2. Pintura lehortzeari lotua	Guztizko partikulak (GP) Konposatu organiko hegazkorrak KOG gisa neurtuta	3 urtean behin
3	01000172-03	S3. 1. kabinako erregailua	Karbono monoxidoa (CO) Nitrogeno oxidoak (NO_X)	5 urtean behin
4	01000172-04	S4. 2. kabinako erregailua	Karbono monoxidoa (CO) Nitrogeno oxidoak (NO_X)	5 urtean behin

Foku zk.	Foku-kodea	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
5	01000172-05	S5. Lehortzeko 1. berogailuko erregailua	Karbono monoxidoa (CO) Nitrogeno oxidoak (NO_X)	5 urtean behin
6	01000172-06	S6. Lehortzeko 2. berogailuko erregailua	Karbono monoxidoa (CO) Nitrogeno oxidoak (NO_X)	5 urtean behin
7	01000172-07	S7. Pintura-boxa	Guztizko partikulak (GP) Konposatu organiko hegazkorrak KOG gisa neurtuta	5 urtean behin
8	01000172-08	S8. Korindoi-jariatzea	Guztizko partikulak (GP)	5 urtean behin
9	01000172-09	S9. Bainu-eremuko fokuak	Guztizko partikulak (GP) Nitrogeno oxidoak (NO_X) Sufre oxidoak (SO_X) Guztizko kromoa (Guztizko Cr)	5 urtean behin
10	01000172-10	S10. Bainu-eremuko fokuak	Guztizko partikulak (GP) Nitrogeno oxidoak (NO_X) Guztizko kromoa (Guztizko Cr) Hidrogeno fluoruroa (HF)	5 urtean behin
11	01000172-11	S11. Azal-tratamenduko galdara	Karbono monoxidoa (CO) Nitrogeno oxidoak (NO_X)	5 urtean behin
12	01000172-12	S14. Zigilatzaileak	Guztizko partikulak (GP) Konposatu organiko hegazkorrak KOG gisa neurtuta	5 urtean behin
13	01000172-13	S16. Ertzak prestatzeko makina	Guztizko partikulak (GP)	5 urtean behin

Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak kontrol-erakunde baimendu (KEB) batek egin beharko ditu (gutxienez ordubeteko hiru neurketa, zortzi ordutan zehar egindakoak) eta aldizkako kontrol horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «KEBen gutxieneko txostenean» ezarritakora egokitu beharko du. Nolanahi ere, isurien kontrolek eta baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Arestian eskatutako parametro guztien neurketen KEB txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan ezarritako kontrol-maiztasunaren aurretik egindakoak badira. Isuri atmosferikoen ondorengo kontrolak egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

b) SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresak urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuan, zenbait jardueratan disolbatzaileak erabiltzeagatik sortzen diren konposatu organiko hegazkorren isuriak murriztekoan ezarritakoa bete beharko du. Horretarako, Ingurumen Sailburuordetzak eskatzen duen informazioa aurkeztu beharko du.

c) Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean, agiri gaurkotuak erabilita, eta 1976ko urriaren 18ko Aginduak, industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzkoak, 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Agiri horiek eguneratuta egongo dira, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskuragarri izango dituzte.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Analisi hauek egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrol-kutxetaren UTM koordenatuak	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
Retana Errekastoa (Zadorra Ibaia)	Industriako hondakin-urak	X: 527016 Y: 4751076	pH-a, emaria	Jarraikia	Autokontrola
			pH-a	Hamabost egunero	Kanpokoa
			OEK		
			Solido esekiak		
			Olioak eta koipeak		
			Cr III		
			Cr (VI)		

Sustatzaileak hiru hilero bidaliko du Ingurumen Sailburuordetzara eta Ebroko Ur Konfederaziora isurketaren analisien adierazpena, efluentearen emariari eta konposizioari dagokionez, efluenteak kontrolatzeko hiruhilekoan egindako analisi guztiak barne.

Halaber, tratamendu-sistemaren ustiapenean izandako gorabeheren adierazpena eta isurketaren hobekuntzan lortutako emaitzak bidaliko dira urtero.

b) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, bai laginak hartzea, bai ondorengo analisia, «erakunde laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du (Jabari Publiko Hidraulikoari buruzko Erregelamenduaren 255. artikulua), eta aurreko puntuetan aipatutako parametroak hartuko dira kontuan.

c) Derrigorrezkoa da ur tratatua neurtzeko pH-neurgailu jarraiki bat eta isuritako uren emari-neurgailu bat izatea, neurketaren tokiko adierazlea, beharrezko bi puntutan alarmak, eta datu historikoak gordetzeko eta kudeatzeko sistema informatizatua dutenak. Horiek Administrazioaren esku egon beharko dute gainera.

d) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira.

e) Parametro baimendu bakoitzaren gainean egongo da kontrol bakoitza, eta baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, B.2.3 ataleko parametro guztiek ezarritako mugak betetzen badituzte.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Adierazlea	Unitatea
Gas naturalaren kontsumoa	Nm^3/Urteko pieza kopurua
Elektrizitate-kontsumoa	kWh/Urteko pieza kopurua
Ur-kontsumoa	m^3/Urteko pieza kopurua
HAk sortzea	kg/Urteko pieza kopurua
Araztegiko lohiak sortzea	kg/Urteko pieza kopurua
Disolbatzaileak dituen pintura-orea sortzea	kg/Urteko pieza kopurua
Disolbatzaile-kontsumoa	kg/Urteko pieza kopurua

C.4.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lur zatiko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamen hori ebazpen honetako C.6 atalean aipatzen den ingurumena zaintzeko programaren testu bateginarekin batera aurkeztuko da.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30a baino lehen, ingurumenaren gaietan aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta inguruneren kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

Isuritako uraren kalitatearen kontrolari buruzko emaitzak, gainera, hiru hilean behin bidaliko dira Ingurumen Sailburuordetzara.

C.6.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan ezarritako betekizunak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri edo mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretarako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Lantegia gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako eragiketa programatuak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurien eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: otsailaren 4ko 1/2005 Legea, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa (34.3 epigrafea «Ibilgailu motordunentzako eta horien motorrentzako zati, pieza eta osagarri ez-elektrikoen fabrikazioa»), eta urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua, kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituena. Hori dela-eta, SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi

hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko neurriak eta jarduerak.

Sustatzaileak aurkeztutako agirietan jasotako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko jarioak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurre hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Besteak beste, olioak, produktu kimikoak, efluenteen arazketako hondakinak, eta orokorrean, instalazioan sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa ditzake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

h) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako ingurunea isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

i) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamendu-instalaziora eramango.

j) Pabiloien barruan zolak garbitzean sortutako ura tratamendu-lerrora bidaliko da.

k) Arazte-prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak aldizka aterako dira instalazioa behar bezala ibil dadin. Behar izanez gero, andel iragazgaitzetan eta hondoan hustubiderik ez dutenetan biltegiratuko dira.

l) Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoko ura kutsatzeko arriskua egon daitekeen eremuetan.

m) Arazketa-instalazioek lohien tratamendua badute, xukatutako ura instalazioaren sarrerara birzirkulatuko da, bertan tratatzeko.

n) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

o) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko. Kasu honetan, neurri hauek azpimarratu behar dira:

● Estazioan hidrokarburoak xurgatzeko erroilu erako edo gai pikortatuzko, edo antzeko berariazko materiala egongo da, ustekabeko jario edo ihesetan berehala aplikatu ahal izateko.

● Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako ingurunea isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

● Berme-neurri gisa, pH-aren eta redox-aren zunda bikoitza eduki behar da arazketa-prozesuko puntu kritikoetan, kontsigna-puntuen desbideratzeei dagozkien alarmekin batera.

● Araztegia ustiatzeko enpresa espezializatu batek egindako protokolo edo eskuliburu bat izango da nahitaez, eta ekipo elektromekaniko, zunda, mintz, dosifikatu eta kontrolatzeko tresna eta abarren azterketa eta mantentze-lanak finkatuko dira bertan.

● Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

● Halaber, prozesuaren funtzionamendu egokiaren ustiapen- eta zaintza-eskuliburua izango da. Aldizka egindako mantentze-lanen eta kontrolen eragiketak, eta antzemandako gorabeherak jasoko dira bertan, eta enpresa espezializaturen bat bertaratzea aholkatzen da.

● Era berean, nahitaez kontratu bat sinatzea eskatzen da araztegiaren mantentze-lanetarako, eta prozesuaren, errendimenduaren eta arazketaren, ekipo elektromekaniko eta sentsoreen funtzionamendu egokia ikuskatzeko.

● Hondakin-ura ezingo da «by pass» bidez isuri arazketa-instalazioetan.

p) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, kutsatzaileen ihesak eta sakabanaketa), sustatzaileak gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari.

q) Gertakari edo arazo larriren bat edo ustekabeko isurketaren bat egonez gero, SOS Deiaki, Udalari eta Ebroko Ur Konfederazioari jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez

ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, datu hauek agertuko dira:

- Gertakari mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Iraupena.
- Ustekabeko isurketa bada, emaria eta isuritako gaiak.
- Mugak gaindituz gero, isuriei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Prebentziozko neurriak, berriro gerta ez dadin.
- Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

r) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara eta uretara egindako isuriei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuari, E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurien gaineko informazioa ematea arautzen duenari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak edo/eta ingurumen-prozedurakoak sartzean datza, IKS-L03 Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www-eper-euskadi.net web-orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, datu pertsonalak babestekoan, ezarritakoa betetzen dela.

G) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, instalazioaren titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnek, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

H) Ingurumeneko baimen bateratu honen mendeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute uztailaren 1eko 16/2002 Legeak, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoak, 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.1.3.1 e) eta B.1.3.2.c) (Hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen onarpen-agiriak); B.1.3.1.n) eta B.1.3.2.e) (Hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen erregistro-eredua); B.4 (Lurzoruaren kalitatea babesteari buruzko baldintzak); C.1 (Isuri atmosferikoen kontrola); C.2.c) (pH-neurgailua eta emari-neurgailua ezartzea); C.4 (Zarata kontrolatzeko proposamena); C.6 (Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina); D.1 (Mantentze-lanetako isuri eta hondakinen balioespena); D.3.a) (Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua); D.3.g) (Produktu kimikoen biltegiratzeen ziurtagiriak); D.3.h) (Larrialdi-kasuetarako material-zerrenda); D.3.i) (Kubetak husteko prozedura) eta D.3.r) (Suteen aurkako babesaren ziurtagiriak).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskapen-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Atal honetako baldintza guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Ingurumeneko baimen bateratu honetan ibilgura isurtzeko jasotako baldintzei dagokienez, Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduaren 261. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoak,

eta baldintza horiek hainbat aldiz ez betetzea berrikusi, bertan behera utzi eta indargabetzeko kausa izango dira.

Seigarrena.– SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresak ebazpen honen xede den esku-erremintak fabrikatzeko jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

● Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

● SK2024 Aeronáutica, S.L. enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

● Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Vitoria-Gasteizko Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 26a.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.